

HIZKUNTZEN KALE ERABILERAREN NEURKETA 2006

Kike Amonarriz

Soziolinguista

Helbide elektronikoa: kamonarriz@euskalnet.net

Lionel Joly

Soziolinguistika Klusterreko kidea

Helbide elektronikoa: lionel@soziolinguistika.org

Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren adierazle garrantzitsuenetako bat da Soziolinguistika Klusterrak antolatzen duen Euskal Herriko hizkuntzen kale neurketa. Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketa Orokorra 1989. urtean egin zen lehen aldiz; geroztik lau urtez behin errepikatu da, eta 2001etik aurrera bost urtez behin. 2006an, beraz, Euskal Herriko hizkuntzen erabileraren kale neurketa egin da eta laster aurkeztuko dizkizuegu neurketa honen emaitza guztiak BAT aldizkariaren ale berezi batean. Artikulu honen asmoa kale neurketen funts teorikoa, 2006ko neurketaren berezitasunak, eta erabiliko ditugun lan hipotesiak aurkeztea da.

INKESTEN AITORTURIKO DATUAK ETA KALE NEURKETEN BEHATUTAKO DATUAK

Soziolinguistikaren adierazleen artean ohikoenak inkesten bitartez lortzen direnak dira, kasu horietan lortzen ditugun emaitzak aitortuak dira. Alegia, inkestatuak hainbat galderari erantzuten dio: bere hizkuntza eza-gutzari buruz, bere hizkuntza ohiturei buruz, bere hizkuntza iritziei buruz eta abar. Inkesta horiek oso interesgarriak dira eta egoera soziolin-

guistikoei buruz datu aberasgarri anitz ematen dizkigute. Normalean, oso modu sistematikoan eta kuantitatiboki adierazgarrian lortzen dira datuak gainera.

Dena den, inkesta horietan jasotzen diren datuak aitortuak dira; alegia, datuak ez dira zuzenean behatuak izan. Horrek datuen fidagarritasunean hutsune bat sortzen du, izan ere, inkesta horietan pertsonen benetako eginkizuna ez da jasotzen baizik eta pertsona horiek beraien eginkizunei buruz duten iritzia. Alegia, gure kasuan ez da jasotzen pertsonaren euskararen erabilera errearen kopurua baizik eta pertsona horrek bere euskararen erabilerari buruz duen iritzia.

Beste era batera esanda, oso pertsona gutxik dakite benetan uneoro zein hizkuntzatan hitz egiten duten eta, beraz, galdetzen bazaie normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duten, eraiki beharko dute iritzi bat eta erantzun bat, eta eraikitze prozesu horretan erabileraren errealitatearekin zer ikusirik ez duen hainbat aldagai sartzen da (esate baterako: iritziak, nahiak, usteak eta abar); hortaz, benetako erabileraren errealitateetik urruntzen gara. Beraz, inkestetan datuak ez dira objektiboak, subjektiboak baizik.

Hutsune honi aurre egiteko eta euskararen erabileraren datu zuzenagoak eta fidagarriagoak lortzeko sortu zituen euskararen kale neurketak SIADECOK (sorrera horri buruz gehiago jakin nahi izanez gero: "SIADECOK: Euskararen erabilera leku publikoetan" in BAT 9. zenb., 1993ko apirila). Euskararen kale neurketetan datuak behatuak dira; zuzenean jasotzen da hiztunak erabiltzen duen hizkuntza.

Errealitate soziolinguistikoa ezagutzeko datu behatuen eta inkesten datu aitortuen arteko aldeak ikertzea eta nabarmentzea beti ere interesgarria izango da. Izan ere, errealitate soziolinguistikoa ez da bakarrik benetan jasotzen dena, errealitateari buruz jendeak pentsatzen duena ere oso adierazgarria da. Modu berean errealitatearen eta irudipenen arteko aldeak zergatik gertatzen diren aztertzea oso interesgarria suertatzen da.

METODOLOGIA

Kale neurketen oinarrizko funtzionamendua erraza da: kalean zehar behatzaile batek jendearen hizkuntza erabilera jasotzen du fitxa batean.

Ibilbideak aurretik finkatuak izaten dira herriz herri eta, fitxan, entzundakoen hainbat ezaugarri jasotzen dira: adin taldea, generoa, entzundako taldearen ezaugarriak etab. Kale neurketetan, noski, ez da norbanakoaren hizkuntza erabilera jasotzen, baizik eta taldeen erabilera; izan ere kalean zehar taldeak baino ezin izango ditugu entzun, gutxitan entzungo dugu norbait bere buruarekin hitz egiten.

Urteetan zehar oinarrizko funtzionamendua ez bada aldatu ere, Euskal Herriko neurketen artean ezberdintasun nabarmenak jaso dira, beti ere neurketa ahalik eta modu egokien egiteko eta garai soziologiko

Dena den, inkesta horietan jasotzen diren datuak aitortuak dira; alegia, datuak ez dira zuzenean behatuak izan. Horrek datuen fidagarritasunean hutsune bat sortzen du, izan ere, inkesta horietan pertsonen benetako eginkizuna ez da jasotzen baizik eta pertsona horiek beraien eginkizunei buruz duten iritzia.

Errealitate soziolinguistikoa ezagutzeko datu behatuen eta inkesten datu aitortuen arteko aldeak ikertzea eta nabarmentzea beti ere interesgarria izango da. Izan ere, errealitate soziolinguistikoa ez da bakarrik benetan jasotzen dena, errealitateari buruz jendeak pentsatzen duena ere oso adierazgarria da. Modu berean errealitatearen eta irudipenen arteko aldeak zergatik gertatzen diren aztertzea oso interesgarria suertatzen da.

berrietara egokitzeko. Aldaketak fitxetan eta neurtutako herrien kopuruan izan dira gehienetan, baina kasu guztietan neurketen arteko konparaketa egin ahal izateko irizpideak errespetatu dira.

2006ko neurketan aldaketa garrantzitsuak egin dira fitxetan. Hasiera batean hiru fitxa erabiltzen baziren euskararen erabilera aldagai adierazgarrien arabera aztertu ahal izateko (generoa, talde tamaina, eta haurren presentzia), aurtun aldagai guztiak fitxa batean sartu ditugu eta, beraz, jasotako elkarrizketen kopurua asko handitu da datuen fidagarritasuna hobetuz. Gainera, aldagai berri bat ere neurtu ahal izan dugu: adin taldearen barneko hizkuntza erabilera.

Beraz, horiek dira 2006ko neurketan jaso diren aldagaiak: hizkuntza (euskara, gaztelera/frantsesa, besteak), adin taldea, taldearen osaera, haurren eragina euskararen erabileran, generoa, bakarrizketak (telefono eramangarriak, atarietako atezain automatikoak, eta abar).

Bigarren aldaketa Euskal Herriko bilakaera soziologikoari egokitzeke egin dugu: euskara eta gaztelera (hegoaldean) eta frantsesa (iparraldean) ez ezik, beste hizkuntzak ere jaso ditugu atal berezi batean. Izan ere, azken urte horietan Euskal Herriak jaso duen immigrazio berriak errealitate soziologikoa aldatu du neurri batean eta herritar berri horien etorrierak egoera soziolinguistikoa zer nolako aldaketak eragin dituen jakin nahi izan dugu. Noski, immigrazio berri horren eragina ez da Euskal Herriko hizkuntzen aniztasunean bakarrik gertatu. Hizkuntza berriak entzun ez ezik gaztelaren erabilera zertxobait areagotu egin dela pentsa genezake. Izan ere alofonoek kasu gehienetan gehiengoak duen edo gehiengotua den hizkuntza ikasi eta erabili ohi dute.

Neurtutako laginean ere aldaketak egin dira 2006an. Metodologiaren egonkortzeko eta neurketa egiteko behar diren baliabideak ahalik eta gehien murrizteko fidagarritasuna irabaziz egin dira aldaketa horiek. 2001eko neurketan Araban, Gipuzkoan, Bizkaian, eta Nafarroa Garaian 5000 biztanletik gorako udalerrri guztiak neurtu ziren. 5000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien % 10 ere neurtu zen. Lapurdin, Nafarroa Beherean, eta Zuberoan aldiz 1000 biztanletik gorako udalerrri guztiak neurtu ziren. 2001ean guztira 173 udalerrri neurtu ziren, beraz. 2006an, aldiz, aurrerago aurkeztuko ditugun lau irizpideen arabera lagin bat aukeratu da eta 64 herri neurtu dira. Herrien tamainaren arabera ibilbide bat edo gehiago izan dezake herri bakoitzak, ibilbideei dagokienez, 2001ean 358 ibilbide neurtu baziren, 2006an 199 ibilbide neurtu dira.

Hego Euskal Herriko udalerrriak aukeratzeko hauek izan dira erabiltako lau irizpideak:

- Aurreko hiru neurketetan neurtuak izatea.
- Datuen arteko gorabehera nabarmenik ez izatea.
- Erabilera tasa ezagutza tasa baino txikiagoa izatea.
- 1000 biztanle baino gehiago edukitzea.

Iparraldean irizpide bakarra jarraitu da: aurreko hiru neurketetan neurtuak izatea.

Aurreko neurketekin konparaketak egiteko beharrezkoak ziren haz-tapenak egin dira.

DATUAK LANTZEKO HIPOTESIAK

Datuak aurkeztu baino lehen komeni izaten da datuak aurreikustea eta hipotesi batzuk proposatzea. Soziolinguistika Klusterra hainbat aditurekin jarri da harremanetan datuak landu baino lehen hipotesiak proposatzeko.

Hipotesiak plazaratzeko Euskal Herriaren bilakaera soziolinguistiko-a euskararen ezagutzari dagokionez hartu behar da kontuan. Hegoaldean, irakaskuntzari esker, haurren eta gazteen artean euskararen ezagutza handitu egin da azken bost urte horietan, bereziki ingurune erdaldunenetan. Adinekoen eta helduen arteko ezberdintasunak aldiz, murrizten doaz euskararen ezagutzari dagokionez, alde batetik, gazte euskaldunak sartzen ari direlako helduen adin taldean eta bestetik heldu erdaldun zaharrenak adinekoen multzoaren zati gero eta handiago bat suposatzen dutelako eta adinekoen taldean ziren euskaldunak, batzuk ia elebakkarrak, apurka-apurka desagertzen doazelako.

Hipotesiak lantzen ditugunean, Euskal Herri mailan kontrakoak diren muturreko egoerak aurkitzen direla eta, beraz, datu orokorrak orekatzen direla haien artean ere kontuan hartu behar dugu. Beraz, datu orokorrak ez dira esanguratsuak eta tokian tokiko errealitate soziolinguistikoaren arabera aztertu behar dira. Euskal Herri mailan, noski, eremu jendetsuenek izango dute pisu gehien aztertuko ditugun datuetan.

Euskal Herriko soziolinguistikan aditua den Kike Amonarrizi eskatu diogu hipotesiak aurkezteko eta hauek dira berak planteatutakoak:

1. Erabileraren hazkunde erritmoa

— Hipotesi gisa planteatuko nuke, erabilera-indizea hobetu egingo dela eta 1989tik aurrera hazkunde-erritmoa moteldu bada ere (% 11, 1989tik 1993ra; % 8, 1993tik 1997ra eta % 4, 1997tik 2001era), 2006ko neurketak, hobetu egingo duela hazkunde erritmoa aurrekoarekiko:

- Orokorrean erabilera-indizea % 0,7 eta % 1en artean hobetzea aurreikusiko nuke:
 - Baxuagoa gertatuko balitz kezkarria litzateke (eta ondo aztertu beharrekoa).
 - % 1etik gorakoa balitz, positibotzat baloratuko nuke.
- Indize horiek lortuz gero, hazkunde-erritmoa % 4 eta % 7ren artean kokatuko litzateke.

2006ko neurketan aldaketa garrantzitsuak egin dira fitxetan. Hasiera batean hiru fitxa erabiltzen baziren euskararen erabilera aldagai adierazgarrien arabera aztertu ahal izateko (generoa, talde tamaina, eta haurren presentzia), aurten aldagai guztiak fitxa batean sartu ditugu eta, beraz, jasotako elkarrizketen kopurua asko handitu da datuen fidagarritasuna hobetuz. Gainera, aldagai berri bat ere neurtu ahal izan dugu: adin taldeen barneko hizkuntza erabilera.

Hipotesiak lantzen ditugunean, Euskal Herri mailan kontrakoak diren muturreko egoerak aurkitzen direla eta, beraz, datu orokorrak orekatzen direla haien artean ere kontuan hartu behar dugu. Beraz, datu orokorrak ez dira esanguratsuak eta tokian tokiko errealitate soziolinguistikoaren arabera aztertu behar dira. Euskal Herri mailan, noski, eremu jendetsuenek izango dute pisu gehien aztertuko ditugun datuetan.

2. Herrialdeei dagokienez

— Herrialdeka, orain arteko hobekuntza-ildoak mantenduko direla iruditzen zait. Gipuzkoan eta Bizkaian puntu batetik gorako hobekuntzamaile lortzea aurreikusten dut. Araban eta Nafarroan puntu baten ingurukoa eta Iparraldean, erabilerak, oraindik ere, beherantz egingo duela esango nuke. Zehazki, honako hipotesi hauek planteatzen ditut:

- Gipuzkoan: % 32 (+/-1)
- Bizkaian: % 13 (+/-1)
- Araban: % 4 (+/-0,5)
- Nafarroan: % 8 (+/-0,5)
- Iparraldean: % 5 (+/-0,5).

3. Adin-multzoei dagokienez

— 1989an adin-multzoak honela sailkatzen ziren erabilera-indizeen arabera:

Haurrak – Adinekoak – Helduak – Gazteak.

— Neurketa bakoitzean hurrenkera hori aldatu egin da, 2001ekoa honako hau zelarrik:

Haurrak – Gazteak – Adinekoak – Helduak.

— 2006ko neurketaren hurrenkera berbera izango dela aurreikusiko nuke, zalantza bakarria Adinekoen eta Helduen posizioak izanik. Nolanahi ere, oso tarte txikia izango da bien artean.

— Etorkezunari begira, hurrenkera horren hurrengo aldaketa horixe izango da: adinekoak bihurtuko direla erabilera-indize baxueneko adin-multzoa.

— Adin-multzo bakoitzari dagokionez, honako hipotesi hauek zabalduko ditut. Haurrek eta gazteek puntutik gorako hobekuntza lortuko dute; helduen erabilera-indizea pittin bat hobetuko da (puntuaren bueltan) eta adinekoena mantendu egingo da, edo pittin bat jaitsi, helduenarekin parekatuz:

- Haurrak: % 21 (+/-1)
- Gazteak: % 15 (+/-1)
- Helduak: % 12 (+/-0,5)
- Adinekoak: % 12 (+/-0,5)

4. Sexuari dagokienez

— Aurreko neurketako joera nagusiak mantendu egingo direla iruditzen zait:

- Haurren eta, batez ere, gazteen artean neskek mutilek baino erabilera-indize hobeak lortuko dituzte.
- Helduen eta adinekoen artean, berriz, erabilera-indizeak nahikoa paretsuak izango dira.
- Hegoaldean, oro har, emakumeek indize hobeak lortuko dituzte, eta Iparraldean, berriz, gizonezkoek hobeak lortuko dituzte, batez ere, helduen eta adinekoen artean.

5. Haurren presentzia

— Haurren presentziak nabarmen hobetuko ditu erabilera-indizeak. Joe-ra orokorretan ez dut uste alde handiegirik egongo denik 2006ko eta aurreko neurketaren artean. Are gehiago, zonalde erdaldunenetan, haurrekiko harremanetan hobekuntza handiagoa espero daiteke.

6. Zonalde soziolinguistikoak

— Zonalderik euskaldunen eta erdaldunen arteko aldea handitu egingo dela iruditzen zait, euskararen erabileraren hobekuntzari dagokionez, zonalde euskaldunenean erritmo biziagoa agertuko dutelako, erdaldunen aldean.■

Adin-multzo bakoitzari dagokionez, honako hipotesi hauek zabalduko ditut. Haurrek eta gazteek puntutik gorako hobekuntza lortuko dute; helduen erabilera-indizea pittin bat hobetuko da (puntuaren bueltan) eta adinekoena mantendu egingo da, edo pittin bat jaitsi, helduenarekin parekatuz.